



2001EKO MAIATZAREN 31KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bateko maiatzaren hogeita hamaikan, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Arantxa Zume-laga Agirre, Irantzu Amundarain Irizar, Jon Agirre Garmendia, Urko Irastortza Aldanondo.

Gorka Lamy Intsausti, Julio Ibañez Urteaga eta José Luis Otamendi Romero zinego-tziak ez dira bertaratu.

Aktan adieraziko dira Inazio Estensoro Eskisabel eta Jose Antonio Dopazo Martin zi-negotziak bertarutzen direneko uneak.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2001eko apirilaren 26an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

Une honetan Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia bertarutzen da.

II.- ALKATETZAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpe-nen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- OROBIONE BIRRERAKITZE LANEN 3. ZERTIFIKAZIOA.-

Orobione etxearen birreraikitze lanen obra zuzendaritza daramaten Juan Jose Gar-mendia Soria eta Roberto Gartzia Azpiri arkitektuek, lanen hirugarren zertifikazioa aurkeztu dute.

Zertifikazio honen zenbatekoa SEI MILIOI EHUN ETA BERROGEITA BI MILA LAU-REHUN ETA HAMAZAZPI (6.142.417,-) pesetatakoa da (36.916,67 €).

Udal arkitekto eta arkitekto teknikoak egindako txostenean adierazten da lur-mugi-mendua proiektuan aurrikusitakoa baino handiagoa izan denez, betelana ere handiagoa izan dela, zertifikazio honetan 002.05 partidan (betelana lurrekin) 300 m³tako neurketa jasotzen dela proiektuan 90 m³ bakarrik aurrikusten denean. Adierazpen hau eginik zertifikazioa on-tzat ematen dute.

Hau honela, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, zertifikazio hau onartzea erabakitzen du.

...///...



...///...

IV.- 1 H.A.KO B.E.B.E.REN ALDAKETAREN ABANTZEA.-

Lazkaoko Udalak sustatu eta Jon Orue-Etxebarria Iturri abokatuak idatzita, 1 Hiri Areako Lazkaoko Planeamenduko Barne-Eraldakuntzarako Berariazko Egitasmoaren aldaketa puntualaren abantzea dokumentua aurkezten da Osoko Bilkurara bere onarpenerako, Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Batzordeak informatua izan ondoren.

Aldaketa puntual honen helburua ondorengo hau da:

- 1 Hirigintza Areako eraikinen goi solairuetan merkatal erabilerak posibilitatzea.

2001eko martxoaren hogeita zortziko alkatetzaren ebazpenak hala aginduta, dokumentua jendaurrean egon da 30 eguneko denboraldian, iragarkiak 2001eko apirilaren 4 datako "Egunkaria" eta "El Diario Vasco" egunkarietan eta 2001eko apirilaren 5 datako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zirelarik. Epe horretan iradokizun bat jaso da, Jose Maria Etxebarria Lasa Jaunak aurkeztukoa.

Iradokizun horren aurrean dokumentuaren egileak honako txosten hau egin du:

1. Idatziaren lehenengo ataletan, Elosegi kaleko 14 zki.dun eraikineko erdisotoko solairuan Taberna musikarekin jartzeko baimen ezespenerari aipamena egiten zaio, solairu horretan hirigintz araudiak aipatu jarduera ezartzea baimentzen duen edo ez aztertuz, hau da, jendaurreko erakustaldi tramitean jarritako dokumentuarenak ez diren elementuak sartzen ditu.

Argi dagoen bezala, ez da ez momentu ez lekua planteatutako gaiaren inguruan sakontzeko, zein beraren inguruan hasitako jarduera espedientearen markuan ebatzi beharko den.

2. Zentzu honetan, nahiz eta iradokizunaren egileak indarrean dagoen planeamenduak guzko erdisotoko solairuetan erabilera komertzial independenteak, eta goiko solairukoekin ez lotutakoak garatzea baimentzen duela kontsideratzen duen, uste du une egokia izan litekeela egungo erregimena argitu eta aukera hori zehaztasun gehiagoz jasotzeko.

Honen inguruan esan, jendaurreko erakustaldian jarritako dokumentua, 1 H.A.ko eraikinetako goiko solairuetan erabileren erregimena arautzera mugatzen dela. Etxebarria Jn.ak aurkeztutako iradokizuna ez dagokio suposizio horri, gai ezberdin bat planteatzen bait du.

Erabat zilegi da, planteatutako aldaketaren irizpide, helburu eta irtenbide orokorren jendaurreko erakustaldian, iradokizunaren egileak ezagutzen dugun dokumentua aukera berri hau sartzeko erabili nahi izatea. Halere Udalarari dagokio, bere eskumeneko jarduren barruan, eskatutako aurrikuspina jasotzea dagokion edo ez ebatzea. Hau da, ez da jendaurreko erakustaldian jarritako dokumentuaren gai tekniko-juridiko bat, aportazio berri bat baizik, zeinen balorazioa Lazkaoko Udalarari dagokion.

Guzti horren aurrean, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere 7 partaideen aldeko botuarekin, eta beraz, Udalaren legezko gehiengo osoaren aldeko botuz, honako erabakiak hartzen ditu:

...///...



...///...

- 1.- Jose Maria Etxeberria Lasa Jaunak egindako iradokizunari ezetza ematea, akordio honen aurrekarietan emandako arrazoiengatik.
- 2.- 1 Hirigintz Areako Barne-Eraldakuntzarako Berariazko Egitasmoaren aldaketa puntual honen abantzea onartzea.

V.- GOIEKIKO 2000. URTEKO KONTUAK.-

Jarraian Osoko Bilkuraren onarpenera jartzen dira GOIEKI, S.A.ren 2000. urteko kontuak.

Une honetan Jose Antonio Dopazo Martin zinegotzia bertarutzen da.

Osoko Bilkurak, aldeko 7 botu (EAJ, EA, EH), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PSE-EE) GOIEKI, S.A.ren urteko kontuak onartzea erabakitzen du.

VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Amundarain zinegotziak (EH) festetako aurrekontuaren inguruko xehetasunak jakin nahiko lituzkela esaten du.

Datu horiek Idazkari-Kontuhartzaileari edo/eta Kultur Teknikariari eska diezazkiela erantzuten zaio.

Estensoro zinegotziak, mendi eta baserrietako batzordearen presidente gisa, Enirio-Aralar Mankomunitateko atzoko bileraren berri ematen du. Esaten du gaia Aralarren pistak irekitzeko artzaiek egindako eskariaren ingurukoa izan zela eta gehitzen du lehen EHNEK egin zuen bezala, datorren ekainaren 6, 7 eta 8an, arratsaldeko 7etan, Amezketan, Legorreta eta Ordizian, EKOSekoak beraien alternatiba aurkeztera etorriko direla, eta aurkezpen hauek Goierriko zinegotzi guztiei irekita egongo direla.

Irastortza zinegotzia (EH) aurki horren inguruan erabaki bat hartzeko garaia iritsiko dela eta hori nola egingo ote den galdetzen du.

Estensoro zinegotziak erantzuten dio esanez aurrena behintzat mendi eta baserrietako batzordean hitzegino dela eta gero ez dakiela, behar bada osoko bilkurara ekarri beharko dela.

Alkateak esaten du datorren asteetan, AA.SS.en azterketaren barruan, kirol instalazioen inguruko azterketak hasiko direla, LKSren eskutik. Bestalde udaltzain-operari lanpostu berriaren hautaketa prozesua nola dihoanaren berri ematen du.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko zortziak zortzi minutu gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

